



KUTXA Enplegatuen Elkarte	Xenda-zaletasun atala
124. zka. - VINUESA	Piqueras mend.-Molinos de Razón/2017-6-24 Sta Ines mendat.-Laguna Negra/2017-6-25

Adiskide mendizaleok:

Soriara (Vinuesa) itzuliko gara, Piqueras mendateko eta Santa Ines mendateko gailurreriak egiteko. Larunbatean, Piqueras mendateko (1.710m) abiapuntuaren goratasunaz baliatuz, gailur-lerroak txirrista eroso bat emango du, eta tontorrez tontor ibiliko gara: El Cabezo (1.931m), Castillo de la Rolliza (1.927m), Alto de los Castillejos (1.768m), Alto del Tomillo (1.757m) eta ezagunagoa den Terrazas-era (1.835m) iritsiko gara.

Hemen norabidez aldatu eta mendebaldera hartuko dugu: Alto de la Valgunilla (1.865m), Alto de las Setecientas (1.930m) eta azkenik Alto de la Chopera (2.143m), hor emango dugularik amaitutzat gailur-lerroaren ibilbidea. Handik Laguna de Cebollera politera jaitsiko gara. Eta bideari jarraituz, gure azken helmuga den Molinos de Razón inguruetara iritsiko gara.

Igandean zerbait laburxeagoa, “txokora” itzuli behar baita. Abiapuntua Santa Ines mendatean izango dugu, hau ere oso goian (1.753m). Gune estrategiko honek Vinuesa eta Montenegro de Cameros-en, Soria probintziako azken herriaren, arteko igarobidea errazten du. Hemendik Alto de las Tres Cruces-era (1.890m) igoko gara eta kateari jarraituz hurrengo txirristara, Alto de las Tres Mojoneras-era (1.879m), iritsiko gara.

Haranera jaitsi eta goizeko azken ahalegina, Urbión tontor (2.228m) ezagunera iristeko. Hango ikuspegiak paregabeak dira. Handik jaitsiera erraza Laguna Negra ospetsuaren aparkalekuraino, eta han amaituko dugu gure bidaldia.

Animo, mendizaleok, natura zain dugu eta!!!

Ibilbidea: 1-Piqueras mendatea-Molinos de la Razón
2-Sta Ines mendatea-Laguna Negra

Beharrezko denbora	6,15-4,50
Goranzko desnibel metatua	807-725 metro
Beheranzko desnibel metatua	1.190-691 metro
Zeharretara egin beharreko distantzia	22.140-15.640 metro
 Ingurua	1
 Orientazioa	1
Joan-etorria	1
Esfortzua	3

Irteera-lekua	Bilbo plaza (17/24 Bus galelekua) eta Pio XII.aren plaza (24/27 Bus galelek.)
Aurkezteko ordua	16:20 (Bilbo plaza) eta 16:30 (Pio XII.aren plaza)
Irteera-ordua:	16:30 (Pio XII.aren plaza)
Bazkaria	Hotel Alvargonzalez (Vinuesa)
Prezioa	160 euro

Izena emateko azken eguna: 2017-5-23ko 12:00etan

Oharra: a/Ez badago gutxieneko parte-hartzaile kopururik, irteera bertan behera geratuko da.
b/ Eguraldiaren iragarpena txarra izango balitz larunbaterako, igandean egingo litzateke ibilaldia.

Izen-emateak egiteko: Alberto Lahuerta (656-721.208/Senderismodad@gmail.com) eta José Ignacio Acuña (943-31.02.52/joseig15@gmail.com).

DAD/Senderismo/Kutxa/Alberto Lahuerta-José Ignacio Acuña

